

## **IRABAZI ITURRIAK**

Gure elkartean irabazi iturri nagusia web orrian salduko ditugun produktuen salmenta da. Hau da, aktiboen salmenta da gure diru iturri nagusia. Web orrian mota ezberdineko arropak saltzea da gure helburua, baina hasiera batean kamisetak salduko ditugu.

Gure produktuez gain, bazkide izateko aukera bat zabalduko dugu. Bazkideek deskontu ezberdinak izango dituzte produktu batzuetan eta burutuko ditugun ekintzetan parte hartu ahalko dute.

Hainbat elkartearekin lanean arituko gara eta jasoko ditugun irabazien zati bat modu ezberdinetako ongintzak egiten dituzten elkarte edo ekintza solidarioetara zuzenduta joango da.

Enpresa handitzen denean, astero munduko egoerari buruzko berri ezberdinak argitaratzen saiatuko gara eta gure ekintzen bideoak argitaratuko ditugu. Bideo batzuk publikoak izango dira, baina beste batzuk bazkideentzat bakarrik. Horrez gain saldu ostean sobratutako arropa piezak gordeko ditugu, denbora batera berriz bazkideentzat bakarrik saltzeko.

Produktuen erosketa, ordainketa bakarrekoa izango da, bazkideetza bestalde, hileroko ordainketa bat eginez burutuko da, ordainketa errepikakor baten bidez. Bazkideak nahi duenean baja hartu ahalko du eta bazkide izateari utzi.

Hauek dira etorkizunean burutu nahi ditugun ekintza eta bideo motak:

- Egoera txarrean dagoen jendea ezagutu eta elkarrizketatu beraien bizi-esperientzia jakiteko
- Naturaren inguruan irteerak antolatu (mendira, hondartzara...) eta aprobetxatuz gune naturalak garbitu
- Munduko gatazken gaietan adituak diren pertsonen